

GERNIKA-LUMO. Herriko hainbat sektoretan parte hartzen dabenen eritxiak batu dabez ikerketea egiteko

Turismoaren garapenerako oinarriak ikertu dabez urian

Udalak aginduta, Xabide kudeaketa eta komunikazio enpresak egin dau behar hori

Iratxe Astuy

Gernika-Lumoko Udalak aginduta, turismo plangintzearen garapenerako oinarrien ikerketea aurkeztu barri dabe, urian. Ikerketa hori, Xabide kultur kudeaketa eta komunikazio enpresek egin dau.

Agustin M. Oiarzabal soziologo eta proiektuaren zuzendaria azaldu dauenez, «ikerketa honen bitartez, Gernika-Lumoko gaur eguneko turismoaren egoera aztertu dogu, batez be, astialdi eta kultura zerbitzueta-ko eragileakaz berba eginez».

Izan be, herriko turismo eta zerbitzuen sektoreari estu lotuta dagozan 15 bat ordezkariak batu dira ikerketearen arduradunek, turismoaren ganeko

nondik norakoetaz gehiago jakiteko. Itaunen gidoi bat egin eta bakotxari turismotzat zer ulertzen dauan galdetu deusie: herrira datozen bisitariek egiten dabezan eskariak ezagutzen dabezan, eta herria bera eskari horrei erantzuteko behar dan moduko azpiegiturak daukazan.

Alkarrizketatuen erantzunen arabera, oraindino badira turismo arloan hobatu beharreko atalak. «Gernika-Lumoko turismoaren etorkizunari begira, marketin eta komunikazio arloak gehiago indartu beharko litzatekez. Turismo eskaria sakonago ezagutzeko beharra be badago. Hori jakinez, bisitarien zerbitzu barriak sortu ahal izango dira, edo dagozanak, indartu. Horra hor,



IRATXE ASTUY

Gernika-Lumoko uria oso ezaguna da nazinoarte mailan, eta bisitariek urrunetik datoz ezagutzeko.

esate baterako, gaur egun Gernika ezagutzeko bisita gidatuen programea», azaldu dabe Xabide enpresakoek.

Bakearen Museoa, Juntetxea eta Urdaibai Biosfera Erreserba

Gernika-Lumoko turismo plangintzearen garapenerako oinarrien barruan, Gernikak nazinoarte mailan daukan irudia jago-tea be proposatzen dabe. Izan be, irudi hori lotuta, ekimen kultural eta turistiko gehiago

sortu eragitea komeniko litzatekela esan dabe.

Dana dala, irudi hori bultzatzeko beharra egiterakoan, Bakearen Museoa, Juntetxea eta Urdaibai Biosfera Erreserba osotzen dauan herrietako bat izatea be, bere mesedetan daukatz Gernikak. Horrezaz ganera, nekazaritzako tradizioa daukan herria izatea be, turismoa erakarteko erabili daiteken arrazoi on bat izan leiteke Gernikarako.

Horregaitik, turismoa ez da ostalarien arloa lotu behar bakarrik. «Turismoak herriko sektore guztiak batu behar dauz», ohartarazi dabe Xabideko aholkulariek, Udal Turismo Saileko ordezkariakz batera.

Igaztik Gernika-Lumo, Euskal Kosta Bizkaia egitasmoan dago Bermeo, Mundaka, Bakio eta Getxogaz batera. Horri esker, Gernika-Lumok lehen baino proiektu handiagoa izatea lortu dau, turismoa arloan.

BERMEO. Eskualdean indar handia daukie oraindino Errege Magoek, eta aurrerantzean be kabalgata asko egingo direla uste dabe

Orain artean umeen karrozea izan dana opariz beteko dabe, eta umeak kalejiran joango dira

O.E.

Bermeoko Ertzila Torrea dagoen Arrantzaleen Museoko arduradunek ontzi maketen erakusketea egiteko asmoa daukie, aurtan be. Eta zaletasun hori daukien pertsonengan jo dabe, ahalik eta erakusketarik osotuena egin gurean.

Dana dala, maketak egiteko

zaletasuna euki ez arren be, inork etxean horrelako beharren bat gordeten badau, maketa hori egun batzuetarako iztea eskertuko deusie bertako arduradunek, Arrantzaleen Museoko erakusketean ipinteko. Izan be, erakusketea amaitu ondoren, barriro emongo jako jabea-ri berea.

Aurtan egin gura daben Ber-

meoko ontzi eredugileen erakusketea bostgarrena izango da. Arrantzaleen Museoko zuzendaria Aingeru Astui adieraz-za dauenez, «ereduak edozein ontzi motatakoak izan daitezke: arrantza ontziak, merkantzia ontziak zein guda ontziak, esate baterako».

Horrezaz ganera, ontzien maketak, edozein sasoi eta tek-

nika erabilia eginikoak izan daitezke: estatikoak, itsas ganean edo *water-line* deritzenak, botilan sartuta, dioramak...

Maketa erakusketa honetan parte hartzeko interesa daukien guztiak maketak zemendiaren 22a baino lehenago eroan beharko dabez Bermeoko Arrantzaleen Museora. Izan be, egin gura daben erakusketea abenduaren 3tik 2003ko otsailaren 2ra arte egongo da ikusgai. Dana dala, ekimen honetaz informazio gehiago gura izan

ezkero, museoko telefono zenbakira deitu ahal da. Honakoa da zenbakia: 94-617 11 71.

AGENDA

GERNIKA-LUMO

Erakusketea: Adrian Olabarriagak egini-ko egurrezko taulak dagoz ikusgai Euskadi-ko Kutzako erakusgelan, zemendiaren 4ra arte. Sarrerea dohan da.

Txakolina: Zemendian egingo daben txakolinaren ganeko ikastaroan izena emoteko epea zabalik dago Kultur Etxean.

LABURRAN

GERNIKA-LUMO

Makazaga Musika Alkartea uriko musika bandea barriro sortzeko asmoa dau

Gernika-Lumoko Musika Bandea orain ehun urte sortu zan. Alkarteko urteurrenaren ospakizuna dala eta, uriko musika bandaren kideei ekimen barri bat aurrera eroatea otu jake. Izan be, lehengo musika bandaren kideak Gernika-Lumoko beste musikari barriakaz batu gura dira, Makazaga Musika Banda izenadun alkartea barriz sortzeko asmoagaz. Hori dala ta, alkartekideek ohar bat zabaldu dabe heritik, eta instrumenturen bat jotan dakienei bandean parte hartzeko konbitea egin deusie. Makazaga Musika Alkartea eguazteneko batzen da antxinako liburutegian, 20:45ean, hain zuzen be.

MUNDAKA

Futbito txapelketan parte hartzeko oraindino izena emon daiteke K.Kiskillon

Zemendian hasteko asmoa daukan Futbito txapelketan parte hartzeko interesa daukanak bere izena emoteko astia dauka, oraindino. Futbito partiduak zapaturo egingo dabez, iluntze partean eta Isla kaleko kiroldegian. Izena emoteko K.Kiskillon Alkartearen lokaletara joan behar da.

ESKUALDEA

Bermeo eta Gernika-Lumoko zineklubetako programazioaren barruan, 'La mosca' eta 'No man's land' pelikuleak emongo dabez, asteen

Bermeoko Midwich Cuckoos Zineklub Taldeak *La mosca* filma eskainiko dau, hileko programazioa amaitzeko. Emonaldia bihar izango da, gaueko 21:00etan, Nestor Basterretxea Udaleko kultur aretoan. Filma Kurt Neumann zuzendutakoa da, eta bera ikusteko ez da ezer ordaindu behar. Gernika-Lumoko zineklubaren programazioaren barruan, barriz, Denis Tanovic-en *No man's land* tituludun pelikula emongo dabe. Emonaldia zemendiaren 8an, zapatuan, izango da, Elai-Alai aretoan. 20:30ean hasiko da.